

## Orixe

*Tierra Vasca*, 123. zk., 1966-09: 7.

*Orixe* orain arte izan degun idazlerik trebe ta langilleena dala esan genezake. Izan ditugu beste idazle trebe asko, ta idazle langille asko, baiñan ez det uste gure izkuntzaren langille-bizkor eta zakonago ta euskera maitazalleagorik, danak batera, gure erriak orain arte eman duanik.

¿Eta nor da *Orixe*?

Zoritxarrez, gure erriak ez ditu bere idazleen lanak irakurtzen, eta ez ditu bere idazleak ezagutzen. Ba dira, *Orixe* irakurri ta ezagutu ta maitatzen duten euskaldun banaka batzuek; baiñan, ori, banaka batzuek besterik ez.

Ara *Orixe* nor dan, axaetik ba da ere:

*Orixe*'ren bere izena Nikolax Ormaetxea zan. Oreja edo Orexa'n, Gipuzkoa'n, jaio zan, 1888', garren urtean, eta Añorga'n, Gipuzkoa'n, il zan, 1951'garren urtean, 72 urte zituala.

Nikolax Ormaetxea iruxkia zan. Bera beste bi arrebarekin batera jaio zan.

Berak gero bere bertso batean dion bezela:

*Ama gaxoak, aurraldi batez,  
titi bañan aur geiago.*

Ala, bere amak iru umeentzat bullarrik ez eta Uitz, Napparroa'n, arkitu zioten eguzama bat; eta emen, Napparroa'n, azi zan, eta bere lenengo euskera Uitzin igaro zituan emezazpi urtean ikasi zuan.

Amaika urte zituala utzi zuan erri onetan bere ikastola, ta artzaintzan asi zan. Bitarte onetan gertatzen zan zerbaitek eman zion gero *Orixe* izena.

Ara nola:

Uitzin bizi zala urtean bein joaten omen zan gurasoak ikustera Orexa'ra. Ezaguna zuan aiton baten etxe-aurretik pasatzerakoan onek ala galdetzen omen zion: "*Orixe*'ra al zoaz, Nikolax?". Aiton nappar arek Orexa'ri *Orixe* deitzen baizion. Eta, ala Nikolax Ormaetxea'k izen ordeko bat aukeratu nai izan zuanean, aiton aren galdera gogora ekarri ta *Orixe* izenarekin izenpetzen asi zan bere lanak.

Emezazpi urte zituala sartu zan Josulagunetara, 1905'n, ta urtebete palta zitzaiola, 18 urte iraun eta gero, 1923'an, urten zan. Zergatik? Ez zan, nunbait, errex makurtzeko mutilla, ta josulagunen artean menpetza oso extua dala ba dakigu. Bein Aita Onaindia'k gai onetaz *Orixe* berari zer jarriko zuan galdetu zionean, ala idatzi zion gure idazleak: "*Jarri zazu: Josulagunek'n ikasi zun, eta andik San Luis Gonzaga ta San Francisco Regis bezela bialdua izan zan*".

Ala ere, josulagun zale aundia izan zan bere bizi guzian, eta euskal idazleetatik jaungoiko maitatzalle aundiena ere bai. Bere lan guziak lenen Jaungo'koari ta gero Euskerari eskeñiak izan ziran.

Josulagunengandik urten eta gero, 1923'tik 1931'arte Bilbo'n egon zan, eta iru liburu idatzi zituan: *Santa Kruz Apaiza* (1929), *Tormes'eko Itxumutilla* (1929) ta *Mireio* (1930).

Gero, 1931'an, errepublika etorri zanean, bere jaioterrira joan zan berriz, eta bi liburu eder idatzi zituan an: *Barnemuinetan* eta *Euskaldunak*.

Guda asi zanean, San Kristobal espetxean euki zuten, eta andik urten eta gero Prantzi'ra pasa zan; an idatzi zituan *Urte guziko meza-bezperak*.

Gero, Ameriketa'ra etorria degu, ta Argentina'n, Chile'n, El Salvador'en, eta azkenik Guatemala'n, Zaitegi ta Ibinagabeitia'rekin *Eusko Gogoa* egiten egon zan.

1954'garreanean biurtu zan berriz errira, ta andik zazpi urtera il zan.

Goian Bego gure Orixe aundia.